

Erasmus ikasleek agur-afari bat antolatu zuten beren herrietara itzuli aurretik

2008/12/23

Erasmus programako ikasleak itzuli dira dagoeneko beren herrialdeetara, HUHEZIn ikastaro bat eginda, lau hilabetekoa, baina joan aurretik antolatu zuten agur-afari bat, esker onez. Guztira **bost ikasle** izan dira, hiru **Irakasle ikasketak** egiten, eta bi **Ikus-entzunezko Komunikazioa**.

Euretariko inork ez zekien ez euskararik, ez eta gaztelaniarik ere. Horregatik, **ingeleza** izan dute **komunikazio hizkuntza**. Lau ikasgaitan gure ikasleekin batera aritu dira, eta Eskoriatzan izan diren bitartean, Erasmus ikasle bakoitzak hemengo ikasle bat izan du lagun, errazago integra zitezen hemen.

Irakasle ikasketetako ikasleek Debagoiena ibarreko hainbat ikastetxetan egin dituzte praktikak. Ikus-entzunezko Komunikaziokoak, ostera, **EITB** taldean, Euskal Herriko komunikazio talderik handienean. Fakultatean izan diren bitartean, **Julia Barnes** eta **Joxe Aranzabal** irakasleak izan dituzte tutore.

Hauek izan dira gurekin egondako ikasleak:

- **Sara Hansen**. University College Copenhagen, Danimarka. Irakasle ikasketak.
- **Louise Zwisler**. University College Copenhagen, Danimarka. Irakasle ikasketak.
- **Chiara Luisetto**. KHL University College, Belgika. Irakasle ikasketak.
- **Saskia Kamphuis**. Windesheim University, Herberereheak. Ikus-entzunezko komunikazioa.
- **Tieme Hermans**. Windesheim University, Herberereheak. Ikus-entzunezko komunikazioa.

